



A. GAZTELUBIDE - PARTE ZAHARRA IBILBIDEA



- | | |
|---------------------------|-------------------------|
| 1. itsas mihilua | 10. terraza zaharra |
| 2. urkiak | 11. Motako gaztelua |
| 3. ereinotzak | 12. Napoleonen Bateria |
| 4. gurbitza | 13. Santiago Bateria |
| 5. Damen Bateria | 14. milazkak |
| 6. Ingelesen hilerriraino | 15. Santa Klara bateria |
| 7. astigar zuri | 16. arteak |
| 8. haritz gorrietatik | 17. pitosporoak |
| 9. Haritz zaharra | |

Ibilbide hau Gaztelubide kaletik hasiko dugu, Damen Bateriarantz. Hartziko arku txiki bat zeharkatu eta berehala, ezkerraldera begira, Kontxa eta Ondarreta hondartzak ditugu bistan. Itsasoaren eragina nabaria da ingurune honetan eta **itsas mihilua** (*Crithmum maritimum*) **(1)** hazten da bertan, eskuinaldean dagoen harresiko arrailetan uzten baititu sustraiak. Goranzko bidean **urki** (*Betula pendula*) **(2)** batzuk, **ereinotzak** (*Laurus nobilis*) **(3)** eta baita **gurbitz** (*Arbutus unedo*) **(4)** txikiren bat ere ikus ditzakegu.

Damen Bateria (5), arrantza portuaren eta Aquariumaren gainean kokatua, kaiaren babesleku nagusia izan zen. Izan ere, horren erakusgarri ditugu badiara begira dauden kanoi txikien ilara. Bide honi jarraituz, aldatu egiten da paisaia eta itsasora zabalik dagoen leku batera iristen gara, itsas pinu (*Pinus pinaster*) (M4) luze batzuen azpitik goazela. Handiagoa da aldapa, eta **Ingelesen hilerriraino (6)** eramaten gaitu. 1813ko batailan hildako soldadu ingelesen oroimenez eraikitako monumentua da, eta Britainiar Uharteetara dago begira. Ingurune honetan hain ugariak diren arroketa jori-jori hazten da goroldioa, leku itzaltsua eta heza baita.



Bideak gerizpean dagoen zuhaitzi itxi batetik eramango gaitu, **astigar zuri** (*Acer pseudo-platanus*) (7) eta **haritz gorrietatik** (*Quercus rubra*) (8), eta **haritz** (*Quercus robur*) (9) zahar batera iristen gara: lehorra eta azal ilunekoa. Eskuinaldea hartuz, **terraza zahar** batera iristen gara, bost zutabeko batera (10), eta bertatik bidean gora egingo dugu **Motako gazteluaren** (11) oinera.

Eskailera nagusietatik iritsiko gara gaztelura bertara, eta eskuinalderantz dauden beste eskailera estuago batzuk igoz. Gaztelu hau XII. mendean eraikia da eta, orain, museo bat eta kapera batzuk ditu barnean. Gainera, soinu handirik egin gabe ibiliz gero, Urgulleko sugandila iberiarren (*Podarcis hispanica*) (M1) bat ikusteko aukera izango dugu behar bada, harresietan geldirik, edota txantxangorriren (*Erithacus rubecula*) (M1) bat, janari bila. Mendebaldeko irteeran dauden eskailera estu batzuetatik jaisten gara eta hala iritsiko gara **Napoleonen Bateriara** (12).

Urgulleko iparraldean gaude. Ikusiko duzue, bestelakoa da landaredia, itsasoaren eraginagatik. **Santiago Bateriara** (13) beherantz goazela, nabarmendu egiten da bidearen ezker aldean dagoen artelatz (*Quercus suber*) (M2) eder baten azal hanpatua. Haritz mota hau oso tarteka agertzen da euskal itsasertzeko muinoetan, eta ez du zuhaitzi handirik eratzten.

Santiago Bateria gaudela, merezi du begiratokira hurbiltzea hiriaren ikuspegi hobezinaz gozatzeko. Zelaigune honetan ikusten ditugun zuhaitzak **milazkak** (*Tamarix gallica*) (14) dira, Alderdi Eder lorategietan ikur den espeziea, "tamarindo" izenez ere ezagun donostiarrentzat. Hemendik, eskailera batzuetatik jaitsiko gara **Santa Klara Goi Bateriaraino** (15): Gerra Karlistetan eraiki zuten, eta taberna txiki bat dago bertan, harresien artean ezkutuan.

Bidea, beherantz joateko, sigi-saga, bihurka doan bidea dugu. Bi aldeetan inguruan ditu **arteak** (*Quercus ilex Subs. ilex*) (16) eta **pitosporoak** (*Pittosporum tobira*) (17), aire zabaleko tokietan hesi moduan landatu ohi den hosto iraunkorreko landarea. Jaisteko bide honetatik berriro hurbilduko gara Damen Bateriara, eta bertatik itzuliko gara Alde Zaharreko hasierako abiapuntura.